

**2007ko MARTXOAREN 1ean LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
OSPATUTAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2007ko martxoaren 1ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Jon Urkaregi Garmendia alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Jon Urkaregi Garmendia

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez
Jon Tejeria Otermin
Iñigo Aginalde Lertxundi

Ezin etorria adierazi du
Karlos Irazu Muñoa

IDAZKARIA: M^a Eugenia Muñoa Irureta

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarreko aktak onestu, hala badagokio:
 - 2007ko otsailaren 8an ospatutako ohiko udalbatzarra.
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
3. 2007 ekitaldirako udal aurrekontu orokorrari hasierako onespina ematea.
4. 2007 ekitaldirako Larraulgo Udaleko Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda onartzea, hala badagokio.
5. Udal bulego orokorretarako fotokopiagailu baten hornidura kontratua esleitzea, hala badagokio.
6. Beobide bidean, depuradora ondoan, euri urak kanalizatzeko egin beharreko obra kontratu administratiboa esleitzea, hala badagokio.
7. Construcciones, Echaide, S.A baltzuak aurkezturiko eskaera aztertzea.
8. B. V. O. andereak frontoitik bera eraikitzen ari diren etxeetako batean egurrezko portxe bat egiteko, aurkezturiko obra baimen eskaera aztertzea.
9. J. M. U. A. eta C. G. M. jaun andreek E. B. etxean teilatua konpontzeko eskaturiko obra baimena aztertzea.
10. Fakturak eta ordainketak.
11. Beste batzuk.
12. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

Bilkura 20.45 orduak direnean hasi da.

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTAK ONESTU, HALA BADAGAKIO.

▣ 2007 urteko otsailaren 8ko Udalbatzarraren Ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren beratartuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Idazkari andreak adierazi duenez azkeneko Udalbatzarretik ez da ebazpenik eman.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

HIRUGARREN PUNTUA

2007 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTU OROKORRARI HASIERAKO ONESPENA EMATEA.

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-kontuhartzaileak prestatu duen 2007 ekitaldirako udal aurrekontuaren aurreproiektua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak xedatutako moduan eta aurreikusitako eranskinekin.

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari Kontuhartzaileak 2007ko otsailaren 27an egindako txostenean dioena.

Gaia eztabaidatu ondoren bertaratuek aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Larraulgo Udaleko 2007 urteko aurrekontu espedientea behin-behingo onatzea 426.854,64 eurotako kantitatean. Horren desglosea kapituluetan honako hau izanik:

GASTUAK

I. Kap. PERTSONAL-GASTUAK	82.150,00
II. Kap. GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	97.500,00
III. Kap. FINANTZA-GASTUAK	10.000,00
IV. Kap. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	53.834,64
VI. Kap. INBERTSIO ERREALAK	118.361,00
VII. Kap. KAPITAL TRASFERENTZIAK	55.000,00
IX. Kap. PASIBO FINANTZIARIOAK	10.000,00
	426.845,64

GUZTIRA GASTUAK

SARRERAK

I. Kap. ZUZENEKO ZERGAK	31.600,00
II. Kap. ZEHARKAKO ZERGAK	4.000,00
III. Kap. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK	30.320,00
IV. Kap. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	187.830,00
V. Kap. ONDARE-SARRERAK	1.000,00
VI. Kap. INBERTSIO ERREALAK INORENGANATZEA	0,00
VII. Kap. KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	122.095,64
IX. Kap. PASIBO FINANTZIEROAK	50.000,00
	426.845,64

GUZTIRA SARRERAK

BIGARRENA.- 2007ko aurrekontu espedientea bideratzeko izapidetzak aurrera eramatea.

HIRUGARRENA.- Udal Aurrekontu Orokorraren espedientea 15 laneguneko epean jendaurrean jarriko da, interesatuek bidezko iritzitako errekurso eta alegazioak tarterartzeko, horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Inongo erreklamaziorik gabe igarotzen bada epea, behin-betiko onartutzat joko da aipatutako dokumentua, beste akordiorik hartu gabe.

LAUGARREN PUNTUA

2007 EKITALDIRAKO LARRAULGO UDALEKO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Ikusirik 2007 urterako Udaleko Idazkariak prestatu dituen Larraulgo Udaleko Plantilla Organikoaren eta Lanpostuen Zerrendaren dokumentuak.

Gaia aztertutik, bertaratuek aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- 2007 urterako Larraulgo Udaleko Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrendaren dokumentuei hasierako onarpena ematea.

BIGARRENA.- 2007 urterako Larraulgo Udaleko Plantilla Organikoaren eta Lanpostuen Zerrenda hamabost egunetako epeaz jendeurrean ipintzea, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, edonork aztertu eta egokiak dituen alegazioak burutu ditzan. Alegaziorik aurkeztuko ez balitz dokumentuak behin betirako onartuta geratuko dira, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

BOSGARREN PUNTOA

UDAL BULEGO OROKORRETARAKO FOTOKOPIAGAILU BATEN HORNIDURA KONTRATUA ESLEITZEA, HALA BADAGOKIO.

Ikusirik Larraulgo udal bulego orokorretan dagoen fotokopiagailua zaharkiturik aurkitzen dela eta beharrezkoa dela berri bat erostea.

Ikusirik aurrekontu desberdinak eskatu direla:

CANON	16 kopia	1.940,00 €
BULEGOAK	20 kopia	2.250,00 €
KOPIDIN	21 kopia	2.139,00 €

Ikusirik Idazkari-Kontuhartzailek 2007ko otsailaren 27an luzaturiko txostena, non adierzten den egokia dela kontratua, kontratu txikien modalitatean izapidetzea.

Bertaratuak, gaia aztertu ondoren

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Kopidin, S.L baltzuari esleitzea Larraulgo Udaleko bulego orokorretarako fotokopiagailuaren hornidura kontratu administratiboa, 2.139,00 euro BEZ-a berneko inportarekin.

BIGARRENA.- 2007ko udal aurrekontuan partida nahikoa aurreikustea.

HIRUGARRENA.- Interesdunari akordio honen berri ematea.

SEIGARREN PUNTOA

BEOBIDE BIDEAN, DEPURADORA ONDOAN, EURI URAK KANALIZATZEKO EGIN BEHARREKO OBRA KONTRATU ADMINISTRATIBOA ESLEITZEA, HALA BADAGOKIO.

Ikusirik Beobide bidean, depuradora ondoan, euri urak kanalizatzeko tuboa puskatua dagoela eta beharrezkoa dela bere konponketa.

Ikusirik hiru aurrekontu eskatu direla:

- JOKIN IRAOLA, S.L	19.894,00 €
- KOLDO JAUREGI SARASOLA	26.274,00 €
- BIXENTE OTEGI LIZASO	34.243,20 €

Ikusirik idazkari andrean 2007ko martxoaren 1ean luzaturiko txostena non egokia dela kontratua kontratu txikien modalitatean izapidetzea.

Bertaratuak, gaia aztertu ondoren

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Beobide bidean, depuradora ondoan, euri urak kanalizatzeko obra kontratu administratiboa, Jokin Iraola, S.L baltzuari esleitzea, 19.894,00 euro BEZ-a barneko inportarekin.

BIGARRENA.- 2007ko udal aurrekontuan partida nahikoa aurreikustea.

HIRUGARRENA.- Interesatuari akordio honen berri ematea.

ZAZPIGARREN PUNTOA

CONSTRUCCIONES, ECHAIDE, S.A BALTZUAK AURKEZTURIKO ESKAERA AZTERTZEA.

Ikusirik 2007ko otsailaren 1ean Construcciones Echaide, S.A baltzuak aurkezturiko idatzia non udal biltegia eraikitzeagatik Larraulgo Udalean ipinitako fiantza, bost mila berreun eta hamazazpi euro eta berrogeitazazpi zentimokoa (5.217,47) dena, itzultzeko eskatzen duen.

Ikusirik 2007ko martxoaren 1ean Udaleko aholkulari teknikaria den Eba Erkizai Brion andreak luzaturiko ondorengo txostena:

2007ko otsailaren 8an udal biltegiaren, gaur egungo egoera eztertzeiko ikuskapen teknikoa egiten da. Han aurkitutako akatsak ikusirik, zera adierazten dut:

Biltegiaren sapaian itogin bat azaltzen da eta biltegiaren sarreraren inguruan sapaia duen azken bukaera altxatzen hasi da ere hezetasunagatik. Oinezkoen atearen erremateak egin gabe edo bukatu gabe daude, bertan dagoen arketa ere ondo jaso dagoelarik.

Beraz, biltegiaren lanak bukatutzat emateko eta fidantza bueltatzeko, esandako akats guzi hauek konpondu beharko dira. Konponketa hauek udal teknikariaren ikuspegi ona jaso beharko dute.

Bertaratuek, gaia aztertu ondoren, oho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Construcciones Echaide, S.A baltzuari jakinaraztea biltegiaren lanak bukatutzat emateko eta ondorioz fidantza bueltatzeko, hiru hilabeteko epean ondorengo lanak exekutatu beharko dituela, hala egin ezean Larraulgo Udalak berak egin eta fidantza exekutatu duelarik.

- Biltegiaren sapaian dagoen itogina konpondu eta sapaiko ezken bukaera egokitu.
- Oinezkoen atearen erremateak bukatu.
- Arketa ondo jaso.

BIGARRENA.- Konponketak bukatzean udaletxean jakinarazi beharko da udal teknikariak ikuspegi ona eman dezan.

HIRUGARRENA.- Interesdunari akordio honen berri ematea.

ZORTZIGARREN PUNTOA

B. V. O. ANDEREAK FRONTOITIK BERA ERAIKITZEN ARI DIREN ETXEETAKO BATEAN EGURREZKO PORTXE BAT EGITEKO, AURKEZTURIKO OBRA BAIMEN ESKAERA AZTERTZEA.

Ikusirik 2007ko otsailaren 1ean B. V. O. andereak Larraulgo udaletxean aurkezturiko idatzia non 4.1 1/1 lursailean portxe bat egiteko baimena eskatzen duen.

Ikusirik 2007ko otsailaren 23an Udaleko Aholkulari Teknikaria den Eba Erkizia Brion andereak luzaturiko txostenean besteren artean ondorengo adierazten duela:

“4.1.1/1 lursaila Larraulgo lur hiritargarriaren barruan dago. Bereziki, Larraulgo “C” dokumentuko A.I.U.4 “Elizalde II”, fitxan azaltzen da lursail honi dagokion araudia. Araudi hau, 2005-ean, “Construcciones Goiargi”-k 4.1 unidateari

zegokion udalak onartutako “Xehetasun azterlan” batekin aldatua izan da, indarrean dagoena azkeneko hau izanik.

Azterlan honetan lursail bakoitzaren okupazioa eta unidatearen eraikigarritasuna finkatzen dira. 4.1 unidatearen eraikigarritasuna 864m²-koa da eta sestra gahieneko okupazio maximoa partzela bakoitzeko 144m²-takoa.

- Gaur egungo unidate osoko eraikigarritasuna 860,72 m²-koa da, 3,28m² gelditzen direlarik agortzeko.*
- 4.1.1/1 lursailaren gaur egungo okupazioa 134,7m²-takoa da, beraz, 9,3m² gelditzen zaizkio agortzeko.*

Artículo 19.- Criterio de cómputo del aprovechamiento edificatorio.

Computarán con carácter general como aprovechamiento edificatorio de un espacio los siguientes:...

.- Los balcones, terrazas, solanas y porches de todo tipo, cuando dispongan de cubrimiento y no estén sometidos a servidumbres de uso público. Se computará el 50% de superficie.

Ikusitako zenbakiak eta eraikigarritasunaren konputoaren araudia kontuan izanik, ondorio honetara heltzen gara:

Unidatearen eraikigarritasuna agortzeko gelditzen diren 3,28 m²-ak etxebizitza honek agortuko balitu, hiru eraikinen (hau da, 6 etxebizitzen) arteko akordio sinatua ekarri beharko litzateke udaletxera.

Etxebizitza honek 4,65m²-tako okupaziora iristeko aukera duela ikusirik eta portxeek erdia konputatzen dutela kontuan hartuz, 6,56m²ko portxe bat egiteko aukera izango luke bakarrik.”

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Udal Aholkulari Teknikaria den E. E. B. andereak 2007ko otsailaren 23an luzaturiko txostena onartzea eta aipatu txostenaren arira B. V. O. andereari jakinaraztea, bakarrik 6,56 m²ko portxe bat egiteko aukera izango lukeela, horretarako 4.1 “Elizalde II” unidateko hiru eraikinen, hau da, 6 etxebizitzen akordio sinatua aurkeztu beharko lukeelarik udaletxean eta portxearen plano bat eta aurrekontua.

BIFARRENA.- Indarrean dauden ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.- Interesdunari akordio hau jakinaraztea.

BEDERATZIGARREN PUNTOA

J. M. U. A. ETA C. G. M. JAUN ANDREEK ETXE BERRI ETXEAN TEILATUA KONPONTZEKO ESKATURIKO OBRA BAIMENA AZTERTZEA.

Ikusirik 2007ko otsailaren 6an J. M. U. A. eta C. G. M. jaun andreek Larraulgo udalean E.B. etxearen teilatua eraberritzeko lanak egiteko udal baimena eskatu dutela.

Ikusirik egingo diren lanen aurrekontua eta J. J. L. Arkitekto Teknikoak sinaturiko Oinarrizko Segurtasun eta Osasun Azterlan bisatua aurkezten dela.

Ikusirik 2007ko otsailaren 26an Udaleko Aholkulari Teknikaria den E. E. B. andereak luzarutiko txostenenan, besteren artean ondorengo adierazten duela.

“Aurrekontuan deskribatzen diren lanak hauek dira:

Obra-hondakinen edukiontzia eta kamioi garabia jartzea, teilatu zaharra kentzea, teilatu berriaren aroztegia eta oholeria, aislantea eta teila frantsesaren jartzea, kobrezko teilatu hodia eta teilatuan bi lehio zabaltzea...

E.B. deritzaion etxea, Larraulgo lur hiritargarriaren barruan dago. Etxearen kanpo itxura markatzen duen araudia “B” dokumentuaren ordenantzetan azaltzen da, bereziki 25, 34 eta 37 artikuluetan.

Artículo 25.- Cubiertas

“...La pendiente máxima de la cubiera será de 35% ...

En la rehabilitación de los edificios existentes, no se podrán realizar obras que modifiquen la disposición y forma de las cubiertas actuales”.

Artículo 34.- Iluminación y ventilación de las piezas habitables.

“...No se permitirá la iluminación ni ventilación mediante huecos contruidos en la cubierta, a excepción de aquellos huecos de acceso al tejado (uno por vivienda).”

Artículo 37.- Materiales a emplear en los edificios.

Los materiales a emplear en las nuevas construcciones, o reforma de las edificaciones existentes serán los tradiciones en el municipio:

...-Cubiertas: Se terminará con teja cerámica en su color natural o teja de hormigón de color y textura similares a la cerámica. Se prohíbe la utilización de materiales como las placas de fibrocemento, asfálticos, pizarras, chapas metálicas, etc. En elementos de pequeña superficie (miradores, vuelos) podrán utilizarse materiales nobles como el cobre para la cubrición de los mismos.”

Araudia eta egin beharreko lanak ikusita, aurrekontuan azaltzen den zeramikazko teila frantsesa egokia da.

E.B. etxearen teilatuak gaur egungo jarrera eta forma berdina mantendu beharko du eta teilatuko lehioei dagokionez, aurrekontuan bi azaltzen dira eta araudiak etxebizitza bakoitzeko bakarra uzten du. (Teilapeko erabilera etxebizitza bakar batek egingo balu, lehio bat bakarrik zabaltzeko aukera egongo litzateke).

Beraz, teilatua eraberritzearen lanak aurreko artikuluetara eta esandako hauetara egokitzen badira, udal baimena ematea egokia iruditzen zait.”

Bertaratuak, gaia aztertu ondoren, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Udaleko Teknikari Aholkularia den E. E. B. andereak 2007ko otsailaren 26an eginiko txostena onartzea eta berau J. M. U. A. jauna eta C. G. andereari jakinaraztea, ondorioz, eskatutako obra baimena ematea, obra baimen hau, aipatu txostenean adierazitako baldintzetara egokitu beharko delarik.

BIGARRENA.- Indarrean dauden udal ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.- Interesatuei akordio honen berri ematea.

HAMARGARREN PUNTOA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK.**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

- EBA ERKIZIA BRION	748,66 €
- ROBERTO LIZASO ASEGURUAK, S.L.	774,12 €
- TELEFONICA	90,40 €
- TELEFONICA	29,07 €
- TELEFONICA	124,25 €
- TELEFONICA	190,81 €
- BULEGOAK	63,51 €
- VODAFONE	101,93 €
- REPSOLGAS	215,88 €
- GARAJE EKIN	175,16 €
- EUSKALTEL	84,18 €
- JOXEAN ALTUNA	247,17 €
- IBERDROLA	45,33 €
- IBERDROLA	310,53 €
- IBERDROLA	91,62 €

- IBERDROLA	240,80 €
- IBERDROLA	247,93 €
- IBERDROLA	4,91 €
- IBERDROLA	1.714,82 €
- 2007KO KABALGATA	224,00 €
- IRUDEK, S.L.	33,91 €
- COMSA	72,41 €
- IZFE	371,20 €
- KOPIDIN	1.849,28 €
- ETOR-OSTOA, S.L.	75,00 €
- KOLDO JAUREGI SARASOLA	321,32 €

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Aipaturiko fakturak, denera **8.448,20 Euro**tako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMAIKAGARREN PUNTOA **BESTE BATZUK.**

Ez da beste gairik aztertu.

HAMABIGARREN PUNTOA **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkeztu.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 22.30 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

Jon Urkaregi

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA

M^a Eugenia Muñoa Irureta